

EZ ONARTU BERTSIO OFIZIALAK

Sanferminetan salatutako sexu eraso guztiz arbuigarria izan da. Indarrez eta bortxaz egin izanak sexu eraso bihurtzen du gertakaria, penetrazioa izan zein ez. Eta delitua larriagoa da, talde batek egin baita. Horrela ageri da indarra duen kode penalean eta negargarria iruditzen zaigu zenbaitek zalantzan jartzea sexu eraso horren izaera. (11/1999 Lege Organikoa, apirilaren 30ekoa, 178. artikulua: “*Indarkeriaz edo larderiaz norbaiten sexu askatasuna erasotzen duenak urte batetik lau urte bitarteko espetxe zigorra izanen du, sexu erasoaren erantzule gisa*”)

Bai mugimendu feministak, bai Gora Iruña plataforma herrikoiak, sexu eraso baten salaketa jendaurrera atera baino lehen, beti saiatzen da ahal dituen iturri gehienetatik informazioa jasotzen, beraiek dutenarekin kontrastatzeko. Ez dio bertsio ofizialari sinesgarritasun handiagoa ematen, lehen lerroan bizi izan dutenei baino.

Hala ere, egunkari askok errepikatzen dute bertsio ofizialak-polizialak dioena kasu honetan, eta bada jendea sinesten duena. Baina emakumeok beti ditugu arrazoi ugari bertsioak kontrastatzeko. Zergatik sinesten duzue poliziaren bertsioa eta ez emakumeen eta herriaren mugimenduak dioena?

Ongi dakigu poliziak ez duela maiz betetzen “genero indarkeriaren biktimei laguntzeko jarduketa koordinatuaren protokoloa”, Nafarroan ere badena sexu erasoetarako.

Uztailaren 10eko goizean, emakumea salaketa aurkeztera joan zenean, etxera igorri zuten salaketa onartu gabe. Egun bereko 13:00etan emakume hori salaketa berriz jartzera bertaratu zelarik, ez zuten bete erakundeek ezarritako protokoloa. Ez zioten deitu interpretari bati, ez abokatuari eta psikologoari (nahitaez egon behar zuten han), salaketako kontakizuna hobeki emana egon zedin eta salatzaileari laguntzeko zein lege aldetik, zein emozionalki. Eta ez zuten eraman osasun etxera, kasu hauetarako finkatutako txosten medikoa gauzatzera, protokoloari jarraikiz.

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzari eskatzen diogu behartu ditzala poliziak zenbait erakundek 2002ko maiatzaren 16an Iruñean sinatutako protokoloa betetzera. Hori ez egitera, emakumeon eskubideak urratzen dira; bigarren mailakotzat hartzen gaituzte eta ez dituzte babesten gure eskubideak, zehazki sexu askatasunerako eskubidea.

Dagokion lana ez egiteaz gain, polizia nazionalaren “bertsio ofiziala” sentsazionalista da oso, baita hedabideek berriari eman dioten jarraipena ere. Eta badirudi salaketako zenbait xehetasun jendaurrera atera badira, poliziak hedabideei salaketa osoa igorri dielako gertatu dela.

Hedabideak arrunt gaizki aritu dira, ez baitzuten kontrastatu polizia nazionalak emaniko bertsioa. Mugimendu feministaren eta herri mugimenduaren bertsioa

ukatu zuten (horiek oso larritzat jo zuten erasoak), eta ezbaian eta zalantzan jarri erasotutako emakumeak zioena, parametro matxistei jarraikiz. Egoera horrek atzera eragiten die emakumeei salatzeke garaian. Eta jakina da gisa horretako delitu asko izaten dela: sexu erasoak gertatzen dira, baina salatu ez.

Denon artean frogatu dugu mugimendu feministak eta herri mugimenduak duten indarra, jendetza bildu baitzen uztailearen 13ko 20:00etan egindako elkarretaratzean eta egun horretan, gaueko hamabietatik hamabiak eta erdietara lokal eta jende ugari egon baitziren musika itzalita. Badakigu bide egokitik goazela eta gauzak aldatzen ari direla. Izan ere, herritarrak dagokien mailan egon dira eta adierazi dute, argi eta garbi, eraso sexisten aurka daudela eta aldaketa soziala nahi dutela.

Ez dugu geldirik egon behar eta, denon artean, aurrera egingen dugu.

GORA BORROKA FEMINISTA!!!

Zuriñe Altable Azanza (DNI 72704900Z)

Ángela Epalza Atxa (DNI 72816688E)

Kai Galarza Cervera (DNI44645703N)

Teresa Zabalegi (DNI 15797287M)

Gora Iruña! Eta Bortizkeri sexistaren kontrako plataforma-ren izenean.